Elorrioko udala

Idazkaritza

ELORRIOKO UDALEKO LANGILEEN ETA AGINTARIEN ERANTZUKIZUNEKO ASEGURUAREN POLIZAREN KONTRATAZIOA ARAUTU BEHAR DUTEN BADINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Kontratazio-prozedura honen xedea ELORRIOKO UDALEKO LANGILEEN ETA AGINTARIEN ERANTZUKIZUNEKO ASEGURUAREN POLIZAREN kontratazioa da, Baldintza Tekniko Agiri honetako zehaztasunen arabera.

Kontratuaren indarraldiaren hasiera 2021eko azaroaren 1erako aurreikusi da.

EPEA:

Kontratuaren iraupena URTEBETErako da, eta urteko luzapenak egin ahal izango dira alde biak horrela adosten badute, gehienezko muga lau urtekoa izanik, luzapenak barne.

LIZITAZIO-PREZIOA

Gehienezko aurrekontua eta lizitazio-mota Administrazio-Klausula Partikularren Agirian agertzen dena da.

Lizitatzaileek beraien eskaintzak hobetu ahal izango dituzte lizitazio-motan prezio baxuagoak eskainiz. Lizitatzaileek aurkeztuko dituzten proposamenetan zehaztutako zenbatekoa, kontratua esleitzeko zifra zehatzean ulertuko da sartuta daudela, ondorio guztietarako, ez bakarrik kontrataren prezioak, baizik eta kontzeptu ezberdinek zergapetzen dituzten zerga guztiak.

BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARRAK:

Jarraian zehazten direnak izango dira, eta poliza bakoitzak estali behar dituen gutxieneko baldintza partikularrak izango dira.

PERTSONALAREN ETA AGINTARIEN ERANTZUKIZUNEKO ASEGURUA

ATARIKO KLAUSULA

Aseguru honek aseguratuari Aseguru Aldian aseguratuari lehen aldiz jakinarazitako erreklamazioak baino ez ditu estaliko, eskatutako atzeraegin-dataren ondoren egindako edo ustez egindako egintza okerrei dagokienez (mugagabea). Ezarri ahal bada, modu berean estaliko ditu Informazioa emoteko Aldian zehar Aseguratuari lehenengoz jakinarazitako Erreklamazioak.

"Aurreikusitako" ondorio eguna: 2021/11/1

1. ASEGURUAREN XEDEA

Aseguruaren xedea da aseguru bat kontratatzea Elorrioko Udalaren zerbitzura dagoen enplegatu publiko edota agintari edo kargu politiko batek karguaren zereginetan ari denean legezkoak diren erantzukizun zibilak estaltzeko, maila pertsonalean. Aseguratuaren edozein erantzukizun bermatzen da plegu honetan kanpoan geratzen dela berariaz esan ez bada.

Aseguru honekin bere funtzioetatik ondorioztatzen diren egintzetan egindako kulpa-egintza orori egotzi diezaioken erantzukizun zibilean erori delako aseguratuen kontra egindako erreklamazioak babesten dira, eta zehazki, batzuk aipatzearren baino ez, mugatzaileak izan barik honako hauek:

1. Agintarien eta pertsonalaren erantzukizuna Administrazio Publikoaren aurrean edo Administrazio Publikoaren itzultzeko Egintzan, edo Administrazio Publikoaren ekintza kalte eta galera zuzenak egitearren bere ondasun eta eskubideetan, edo kontabilitate erantzukizunarekin lotutako ekintzan.
2. Erantzukizuna hirugarrenen aurrean.
3. Erantzukizuna datuen babesagatik.
4. Erantzukizun zibila agintariaren edo pertsonalak bidegabeak diren praktikak egitearren.
5. Erantzukizun zibila Administrazio Publikoak bidegabeak diren praktikak egitearren.
6. Agiriak galtzea.
7. Laguntza psikologiko-gastuak.
8. Irudia berreskuratzea.
9. Defentsa eta legezko laguntza.

1.1. **Erantzukizuna Administrazio Publikoaren aurrean itzultze-bidean:**
Aseguratuak Aseguratuaren izenean ordainduko ditu bere kontra jasotako Erreklamazio batetik eratorritako Galera guztiak, Aseguru Aldian zehar lehen aldiz, eta Administrazio Publikoak itzultze-bidean hasia, egintza oker bat alegatuz, hala nola aurretiko informazio izapidetik eratorritakoak.

1.2 Erantzukizun zuzena Administrazio Publikoari sortutako kalteengatik:
Aseguratuak Aseguratuaren izenean ordainduko ditu bere kontra jasotako Erreklamazio batetik eratorritako Galera guztiak, Aseguru Aldian zehar lehen aldiz, eta Administrazio Publikoak hasia bere ondasun eta eskubideetan jasotako kalteengatik egintza okerra alegatuz.

1.2. Erantzukizuna kontabilitate-gaietan:
Aseguratuak Aseguratuaren izenean ordainduko ditu Kontu-Auzitegiak (edo Autonomia Erkidegoko kontuen beste organo fiskalizatzaile batek) bere kontra hasitako ikerketarekin lotutako Galera guztiak, Aseguru Aldian zehar lehen aldiz, Egintza Okerra alegatuz.

1.4. Erantzukizuna hirugarrenen aurrean:
Aseguratuak Aseguratuaren izenean ordainduko ditu bere kontra hirugarren batek egindako Erreklamazio batetik eratorritako Galera guztiak, Aseguru Aldian zehar lehen aldiz, egintza okerra alegatuz.

1.5 Aseguratuaren lan erantzukizuna:
Aseguratzaileak Aseguratuaren izenean ordainduko ditu honen kontra Administrazio Publikoan ari den edo aritu izan den edozein pertsona fisiko, edo hautagairengandik jasotako Erreklamazio batetik eratorritako Galera guztiak, Aseguru Aldian zehar lehen aldiz, lan egintza okerra alegatuz.

1.6. Administrazio Publikoaren laneko erantzukizuna:
Aseguratzaileak Administrazio Publikoaren izenean ordainduko ditu bere kontra jasotako Erreklamazio batetik eratorritako Galera guztiak, Aseguru Aldian zehar lehen aldiz, Administrazio Publikoan ari den edo aritu izan den edozein pertsona fisiko, edo hautagaia dena, lan egintza okerra alegatuz.

1.7 Defentsa eta ikerketa:
Aseguratzaileak Aseguratuaren (eta Administrazio Publikoarenean aurreko 1.6 atalean jasotako kasuan) izenean Defentsa eta ikerketa Gastu guztiak ordainduko ditu Polizaren estalduren eremuan, aurrez Aseguratzailearen idatzizko baimena jaso badu. Hala eta guztiz ere, aseguratzaileak defentsa gastuak eta galeren zenbatekoa aurrez jarriko ditu, modu jarraituan estalitako edozein erreklamazioaren epai tinkoa emon aurretik. Aurreratutako zenbatekoak Aseguratzaileari itzuli beharko zaizkio Aseguratuak ordainketa horiek jasotzeko eskubidea ez zuela ebazten den kasuan.

2. HEDAPENAK

Honako estaldura gehigarri hauek ere, sartuko dira:

2.1 Larrialdi-gastuak
Aseguratuak Aseguratzailearen idatzizko aurretiazko baimena ezin izango balu lortu defentsa eta ikerketa gastuetan sartu aurretik, aseguratzaileak atzeraeragineko baimena emongo dio, beti ere Aseguratzaileari baimena eskatu badio gastuak lehenengoz egin zituen unetik hasita 14 eguneko epean.

2.2. Fidantzak
Aseguratu batek, seguruaren aldian zehar egintza okerra alegatu ondoren jasotako erreklamazio batetik eratorritako fidantzak galeren artean sartuko dira.

Aseguratu bati ezarritako fidantza galtzen bada, epaiketan ez agertzearren edo beste edozein arrazoi batengatik, aseguratu baten erantzukizun penalagatiko epaia barne, edo epaileak erantzukizun penala ezartzen badu, edo erreklamazioa osorik edo zati bat polizak ez duelako estaltzen, aseguratuak edo Administrazio Publikoak aipatutako fidantzaren zenbatekoa berehala itzuli beharko diote modu solidarioan aseguratzaileari.

2.3 Mendeko administrazio-erakundeak
2.3.1 Administrazio publikoak erakunde bat sortzen edo tutoretza hartzen badu eta hau mendeko administrazio-erakunde bihurtzen bada Seguruaren aldian, estaldura automatikoki zabalduko da aipatutako mendeko administrazio-erakundera aseguratzaileari horren barri emotea behar izan barik eta prima gehigarririk ordaintzeko premia barik, baina hau izango da erakunde hori mendeko administrazio-erakunde bilakatu ondoren egindako okerreko egintzetarako da.

2.3.2 Administrazio Publikoak mendeko administrazio-erakunde bat desegiten badu edo kontrola edo tutoretza galtzen badu, aseguru aldian edo lehenago, aipatutako mendeko administrazio-erakundeetan aseguratutako pertsonak babestuta jarraituko dute, nahiz eta babes hori lotu behar izango den tutoretza desegin, likidatu edo kontrola galdutako egunarekin.

2.3.3 Aseguratzailea aseguratuen galeren erantzulea baino ez da izango, egintza edo portaera okerrekin lotuta, mendeko administrazio-erakunde bat den bitartean.

2.4. Kanpoko administrazio-erakundeak
2.4.1 Aseguratutako batek jasotako erreklamazio batetik eratorritako galerak sartuko dira, egindako egintza oker bat alegatuz, administrazio publikoaren ordezkaria izanik, kanpoko administrazio-erakunde bateko gobernu-organoan.

2.4.2 Administrazio publikoak Aseguruaren Aldian Kanpoko Administrazio-Erakunde bat bereganatuko balu eta honen gobernu-organorako ordezkari bat edo gehiago izendatzen baditu, estaldura automatikoki zabalduko da ordezkariok polizan sartzeko. Eta kide hauek aseguratuak izango aurrez

aseguratzaileari horren barri emotea behar izan barik eta prima gehigarririk ordaintzeko premia barik, baina hau izango da erakunde hori kanpoko administrazio-erakunde bilakatu ondoren egindako okerreko egintzetarako bakarrik.

2.4.3 Administrazio Publikoak Aseguru Aldian zehar edo lehenago Kanpoko Administrazio-Erakunde baterako izendatutako ordezkari baten edo gehiagoren izendapenak bertan behera uzten baditu kide izateari utzi diolako, kide horien estaldura Kanpoko Administrazio-Erakunde horietan aseguratu gisa ezarriko zaie, izatezko aldaketa eguna baino lehen egindako okerreko egintzen erreklamazioekin lotuta.

2.4.4 Aseguratzaileak aseguratuen galeren erantzulea baino ez da izango, egintza edo portaera okerrekin lotuta, erakundea kanpoko administrazio-erakunde bat den bitartean.

2.5 Harreman publikoen gastuak
Galeren artean sartuko dira, edozein erreklamaziotik erator daitezkeen kontrako ondorioak edo publizitate negatiboa saihestea edo mugatzea helburu duen eta Aseguratzailearen aurretiazko idatzizko baimena duen aseguratzaile batek behar izan dituen harreman publikoetako enpresa edo aholkularitza batekin, krisiak kudeatzeko konpainia edo abokatuen bulego batekin lotutako arrazoizko lansariak eta gastuak.

2.6. Erreputazioa babesteko gastuak
Galeren artean sartuko dira, erreklamazio baten ondorioz aseguratuaren alde emondako epai tinko baten konklusioak zabaltzeko helburuarekin Aseguratzailearen aurretiazko idatzizko baimena duen aseguratzaile batek behar izan duen harreman publikoetako enpresa edo aholkularitza batekin lotutako arrazoizko lansariak eta gastuak.

2.7. Galera gutxitzeko gastuak
Halaber galeren artean sartuko dira aseguratu batek bere kontra tartekatu daitekeen ustezko erreklamazio bat prebenitzeko eta gutxitzeko hartutako neurrien ondorioz jasandako kostuak eta gastuak, erreklamazioa tartekatu izanez gero poliza honen babesean estalitako galera bat izango litzatekeelako, kasuak hauek balira:

- Aseguratuak erakutsiko balu, aseguratzailearekin adostu ondoren, galera gutxitzeko egindako gastuak arrazoizkoak, proportzionalak eta hainbaten ustezko erreklamazio baten ondorioak gutxitu edo saihestuko dutela.
- Ordainketa egiteko inguruabarren gaineko informazioa emoten bada 5.3 Baldintza Orokorrak aurreikusten duena jarraituz.

- Aseguratuak hartutako edozein neurri Aseguratzailearen aurretiazko idatzizko baimenari lotuta geratuko da, justifikatutako arrazoi barik ukatuko edo atzeratuko ez duena.
- Aseguratzailearen erantzukizuna aipatutako gastuekiko inondik inora ez da gaindituko aseguratzaileak ordaindutako baino gehiago, poliza honen estaldura pean aseguratutako pertsona baten kontra erreklamazio baten jakinarazpena egin bada.
- Erreklamazioak estaldura duela erakusteko ardura aseguratuarena izango da.

Estalduraren hedapen hau ez da aplikatuko Administrazio Publikoak aseguratutako edozein pertsonaren kontra tartekatzen duenean, ez eta kaudimengabezia, ondare desorekaren ez eta lehiaketa prozeduren ondoriozko erreklamazioetan.

2.8 Aldi baterako desgaikuntza

Galeren artean sartu beharko da pertsona bati diziplina-prozedura bat tarteko dela eta prozedura zabalik dagoen bitartean osagarriak kentzearen edo lansarietan egindako murrizketaren ondorioz ordaindutako zenbatekoari dagokion kopurua, Aseguru Aldian lehen aldiz, Administrazio Publikoak aipatutako aseguratuaren kontra, egintza oker bat alegatuz aseguruaren xedearen barruan 1.1, 1.2 eta 1.3, egindako erreklamazio baten ondorioz.

Aseguratutako pertsona behartuta geratuko da aseguratzaileari estalduraren zabaldura honen barruan ordaindutako zenbatekoak itzultzera diziplina-prozedura burutu bezain laster, amaitzen den moduan amaitzen dela.

2.9 Korporazioko presidentea

Galeren artean sartuko dira, Aseguru Aldian alkatearen heriotzaren, edo ezgaitasun iraunkorraren deklarazio ofizialaren ondotik Administrazio Publikoak publizitate negatiboa saihestea edo mugatzea helburuarekin kontratatu dezaken harreman publikoetako enpresa edo aholkularitza batekin, krisiak kudeatzeko konpainia edo abokatuen bulego batekin lotutako arrazoizko lansariak eta gastuak. Sari edo gastu horiek aseguratzailearen aurretiazko baimena jaso ondoren baino ez dira ordainduko, justifikatutako arrazoi bat barik ukatuko edo atzeratuko ez dituenak.

2.10 Agiriak galtzea

Galera lez sartuko dira Aseguruaren Xedean aseguratuak hirugarren bati agiriak galtzeagatik, hau da, suntsitu, ezabatu, kaltetu edo deformatu dituelako Aseguru Aldian, eta aseguratuak egindako egintza oker baten ondorioz legezko erantzukizuna duen pertsonak ordaindu beharko lizkiokeen kopuruak.

Galera gisa kontabilizatuko ditu aseguratu batek arrazoizko eran eta aseguratzailearen aurretiazko idatzizko baimenarekin ordaindu beharko lituzkeen kostuak eta gastuak, Administrazio Publikoak Aseguru Aldian zehar aurkitu eta aseguratzaileari jakinaraziko balio aipatutako aseguratuak

egindako egintza oker baten ondorioz hirugarrenen agiriak suntsitu, ezabatu, kaltetu edo deformatu dituelako kalte-ordainak ordaintzeko legezko arduraduna delako.

Emondako estaldura honako honi lotuta geratuko da:

- Aipatutako galera edo kaltea agiriak aseguratuaren zaintza pean dauden bitartean sortu delako, edo honek beste bati zaintzeko emon ondoren.
Aseguratua edo honek zaintzeko emondako beste edozein:
-Galdutako agiriak bilatzeko aseguratuak ahaleginak egin baditu; eta
- Kostu eta gastu horiek faktura eta ordain-agiri bidez behar moduan justifikatu behar dira.

Aseguratzaileak ez du erantzungo galerak edo kalteak honako egoera hauen ondorioz sortu badira: matxinada, istiluak edo hondamendi naturala, ez eta galerak edo kalteak erabileraren ondorioz hondatu direlako edo sitsak edo beste intsektu edota animalia batzuk hondatu dituztelako edo aseguratuaren kontrolpetik kanpora geratzen den beste edozein inguruabar delako.

2.11 Laguntza psikologikoagatiko gastuak
Galeren artean sartuko da, estalduraren xedea izanik eta aseguru aldian zehar estalitako erreklamazio baten ondorioz aseguratuak kontratatutako tituludun psikologo baten edo beste mediku aholkulari edo parekoa izan daitekeen osasun arloko beste baten arrazoizko lansari profesionalak, kostuak edo gastuak, aseguratzailearen aurretiazko idatzizko baimenarekin.

3. EGINTZA OKERRAK

3.1. Egintza Okerra:

Aseguratu batek Aseguruaren Xedearen 1.1, 1.2, 1.3 eta 1.4 atalei dagokienez datu pertsonalen babesari buruzko edozein akats edo omisio, adierazpen ez-zehatz, konfidentzialtasuna haustea edo arauak urratzeaz ari da egintza okerra, baldin eta zabarkeriaz edo erruz egin badu egindakoa, bere eginkizunak betetzean eta karguaren jardutean, bere betebeharrak ez betetzeagatik edo Legearen aurkakoa izateagatik (datuak babesteko araudia barne), benetakoak edo ustezkoak izan.

3.2 Laneko egintza okerra

Aseguratuak lan arloan egindako edozein egintzaz edo omisioz ari da aseguruaren xedearen 1.5 atalarekiko edo administrazio publikoaren aseguruaren xedearen 1.6 atalarekiko, honako honen arabera:

3.2.1. Enplegu, sustapen edo profesional garapenari uko egitea, justifikazio barik;
3.2.2. Enpleguari edo difamazioari buruzko publizitatea edo adierazpen faltsuak;
3.2.3. Diskriminazioa;
3.2.4. Bidegabeko diziplina-neurria, sexu-jazarpena, "mobbing"a, edo beste edozein motatako jazarpena behar lekuan;
3.2.5. Errepresaliak;
3.2.6. Larritasuna emozionalaren bidegabezko kausa; edo
3.2.7 Behargineen funtsezko eskubideen urraketa.

4. <u>AURRETIK ASEGURATUTAKO PERTSONAK</u>

Sinatutako poliza barrizten ez bada eta arrisku berak estaliko dituen erantzukizun zibileko beste poliza aseguru batek ordezkatzen ez badu, lehengo polizaren estaldurak hedatu egingo dira poliza hau barrizten ez den egunetik 12 hilabeteko epean aurretik aseguratuta zegoen pertsona batengandik, aseguratuen artetik ateratako egunaren aurretik egindako egintza okerra alegatuz jasotako edozein erreklamaziotik eratorritako edozein galera sartzeko. Guzti hori, Informazio-Aldia eskatu izan ez bada, edo transakzioa egin ez bada.

5. <u>INFORMAZIO-ALDIA</u>

Poliza hau barrizten ez den kasuan, hartzailearen edo aseguratzailearen borondatea hori delako, Elorrioko Udalak dohaineko informazio-aldi bat kontratatu ahal izango du Aseguru-Aldiaren jarraiko hurrengo 60 egunen barruan.

Hartzaileak edo aseguratzaileak uko egiten badiote poliza hau barrizteari, Administrazio Publikoak hurrengoetako edozein informazio-aldietako edozein kontratatu ahal izango du:

- 60 egun: Doan.
- 12 hilabete: Azken urteko prima garbiaren % 50a.
- 24 hilabete: Azken urteko prima garbiaren % 100a.

Informazio-aldia edozein aseguratuk informazio-aldian zehar lehen aldiz Klausula Partikularren agiria ezarritako atzeraegite eguna baino beranduago eta Aseguru Polizaren amaiera eguna baino lehen egindako egintza oker bat alegatuz jasotako erreklamazioei baino ez zaie ezarriko.

Informazio-aldia kontratatzeko eskubidea erabili behar da Aseguru aldiaren amaiera egunetik 15 eguneko epean aseguratzaileari bialdutako idatzizko jakinarazpen bidez, eta indarrean sartuko da prima gehigarria ordaindutakoan, ez lehenago.

Aseguratzaileak amaituko den polizan jasotzen diren baldintza, kalte-ordainen muga edo prima ezberdinekin lotuta egingo duen eskaintza ez da uko egitea izango.

Administrazio publikoak transakzio bat egingo balitz, edo aseguratzaileari prima ordaintzen ez bazaio ez du eskubiderik izango informazio-aldi bat eskatzeko.

6. KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEN DUTENAK

6.1 ASEGURUAREN HARTZAILEA

Hartzailea Elorrioko Udala izango da.

6.2 ASEGURATUAK

Aseguratuak izango dira:

6.2.1 Edozein pertsona fisiko aseguruaren kontratuak indarra hartzen duen egunean agintaria edo kargu politikoa, karrerako edo aldi-baterako funtzionarioa eta administrazio publikoan edo Elorrioko Udaleko enplegatu publiko izan direnak, direnak edo izango direnak. Ondorio hauetarako, karrerako eta aldi-baterako funtzionarioak eta administrazio publikoaren zerbitzura gainerako beharginak edo enplegatu publiko izango dira Elorrioko Udalean zerbitzuak emoten dituztenak.

6.2.2 Edozein aseguraturen legezko ezkontideak (sexu bereko bikoteak, bizilekuaren herrialdeko legeak onartutako izatezko bikoteak barne). Hau bakarrik onartuko da egintza oker baten ondorioz aseguratuaren aurka emondako epai baten ondorioz ezkontidearen jabetzako irabazpidezko ondasunen aurka hasitako prozeduretan. Kontratu honek ez du estaliko ezkontidearen egintza oker baten ondoriozko erreklamaziorik.

6.2.3 Aurreko ataletan zehaztutako edozein pertsonaren heriotza, ezgaitasun, kaudimengabetasun edo porrotaren ondorioz lehen aipatutakoen legezko ordezkariak, oinordekoak, legatuduna edo eskubidedunak.
Kontratu honek ez du estaliko legezko ordezkarien, oinordekoen, legatudunen edo eskubidedunen egintza oker baten ondoriozko erreklamaziorik.

7. EREMU GEOGRAFIKOA

Espainian aurkeztutako erreklamazioak edota munduko edozein lekutan aurkeztutako erreklamazioak, beti ere Espainiako legeetan oinarritzen badira.

8. FRANKIZIAK

Bakar bat ere ez.

9. ATZERA-EGITE EGUNA

Mugagabea.

10. KALTE-ORDAINAREN MUGA

Ezbehar eta aseguru aldiko kalte-ordainetarako ezartzen den muga 2.000.000,00 eurokoa da.

AZPIMUGAK

- Administrazio Publikoaren laneko erantzukizuna: 250.000,00 € erreklamazioko eta aseguru-aldiko.
- Harreman publikoen gastuak 150.000,00 € erreklamazioko eta aseguru-aldiko.
- Erreputazioa babesteko gastuak 150.000,00 € erreklamazioko eta aseguru-aldiko.
- Galera gutxitzeko gastuak 100.000,00 € erreklamazioko eta aseguru-aldiko.
- Aldi baterako desgaikuntza 150.000,00 € aseguratuko; 100.000,00 € aseguru-aldiko.
- Udalburua, pertsona klabea: 150.000,00 € erreklamazioko eta aseguru-aldiko.
- Agiriak galtzea. 200.000,00 € erreklamazioko eta aseguru-aldiko.
- Laguntza psikologo-gastuak. 50.000,00 € erreklamazioko eta aseguru-aldiko.

11. ISILPEKOTASUNA

Konpainia aseguratzailea behartuta geratuko da Elorrioko Udaleko administrazioak emoten dizkion datuak isilpean gordetzera aurreikusitako baldintza berezien exekuzioan, beraz, datuok arriskuen estalduratik eratorritako helburu espezifiko eta bereziki mugatuetarako ezingo ditu erabili.

Halaber, aurreko paragrafoan aipatu diren datuak kontsultatzeko aukera kontrolatuta geratuko da, informatizatu badira edo informatizatu behar badira izaera pertsonaleko datuak babesteari eta datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzeari buruzko legeriak aurreikusitakoarekin bat.

Elorrion, 2021eko ekainaren 2an.

La alcaldesa